



DEBAGOIENA

Landa Garapen Programa

2007-2013



ESKUALDEKO LANDA GARAPEN PROGRAMA (LGP)

AURKIBIDEA:

1. SARRERA

1.1. DOKUMENTUAREN AURKEZPENA

1.2. METODOLOGIA

2. AURREKARIAK. AURREKO LGPari BURUZKO BALORAZIOA

3. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

3.1. ESKUALDEAREN AURKEZPENA

3.1.1. Kokapena

3.1.2. LGParen Eremua

3.1.3. Eskualdearen deskribapena

3.2. AMIA MATRIZA

3.3. LEHIATZEKO ABANTAILAK ETA FAKTORE KRITIKOAK

4. ETORKIZUNERAKO ESKUALDEAREN IKUSPEGIA

5. PLANGINTZA

5.1. ARDATZAK, HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

5.2. PLANGINTZAREN KOADRO OROKORRA

1. SARRERA

1.1. DOKUMENTUAREN AURKEZPENA

1.2. METODOLOGIA

Dokumentu honetan jasotzen dira **DEBAGOIENA** eskualdean **Landa Garapeneko Programa (LGP)** berria eguneratze eta definitze aldera egin den hausnarketa eta planifikazio prozesuko azken emaitzak. Prozesuaren buru **DEBA GARAIA Landa Garapeneko Elkarte (LGE)** izan da, **ITSASMENDIKOI**ren babes eta laguntzarekin.

LGP plangintza estrategikorako tresna bat da, **Landa Garapeneko 10/1998 Legean** aurreikusten dena. Legeak dioenez, *“...bereziki Euskal Herriko landa ingurunea garatzera orientatzen diren politikak landa ingurunearen garapenerako programen forma hartuko dute”*.

Programa 2007-2013 **denboraldirako** egin da, dena den programa bakoitzean **eskualdeko landa eremuen etorkizunerako ikuspegi bat** aurreikusten da, epe luzeago batera begira, hain zuzen 15-20 urte bitartekoa. Ikuspegi horretara iristeko lehen urratsa LGP hau betetakoan emango da.

Bat baino gehiago dira eskualdeetako LGPak eguneratu beharraren atzean dauden arrazoiak:

- a) **EAEko lehenengo hamar landa eskualdeetako landa garapeneko programak 1999an egin ziren¹**. Landa eremuetako populazioen eta errealitate sozioekonomikoen dinamikak **aldaketa nabarmenak izan dituzte azken urteetan**. Lehen zeuden arazo edo gabezia batzuk konpondu dira eta beste batzuentzat, berriz, lana serio eta ondo antolatuta jarraitu beharra dago egiten; testuingurutik sortutako aukera edo mehatxu berriak ere sortu dira. Beharrezkoa zen, beraz, hausnarketa bat egitea, landa eremuen egungo egoeraren eta landa garapeneko prozesuekin jarraitzeko ildoan inguruan.
- b) Landa garapeneko programak **aldi berean eguneratu dira EAEko 18 landa eskualdeetan²**. Horri esker, eskualde ezberdinetako prozesuen jarraipena era koordinatuago, integratuago eta koherenteagoan egin ahal izan da; eta aldi berean eskualde bati baino gehiagori, lurralde edo EAE osoari eragiten dieten zeharkako gaiak ere identifikatu ahal izan dira. Halaber, haien inguruan zeresana duten lurralde edo EAE mailako departamentuetan erosoago egingo dira kudeaketak, eta aukera egongo da departamentuen programak eta politikak landa eremuen errealitatera moldatzeko.
- d) Prozesuarekin batera definitu eta sartu da indarrean **Landa Garapen Jasangarriko Programa (LGJP) 2007-2013, finantza marko europarra**. Programa horrek landa garapeneko dekretu berriak argitaratzea dakar.

¹ 6 Araban, 2 Bizkaian eta 2 Gipuzkoan.

² Araba: Aiara, Gorbeia Inguruak, Lautada, Mendialdea, Errioxa, Haranak.
Bizkaia: Arratia-Nerbioi, Busturialdea, Durangaldea, Enkarterrialde, Lea-Artibai, Uribe.
Gipuzkoa: Debabarrena, Debagoiena, Donostialdea-Bidasoa, Goierri, Tolosaldea, Urola-Kosta.

Aldiberekotasun horrekin landa garapen plangintza eta instrumentuen arteko koherentzia estrategikoa handitzea lortu nahi da.

- e) Eguneratze prozesuaren emaitza eta LGJP-ren ildo estrategikoak **erreferentziatzat** hartuko ditu Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak **landa eremuetarako politikak eta laguntzak zuzentzerakoan**.

LGP hiru bloke nagusik osatzen dute: **Egoeraren Diagnostia, Garapenerako eskualdearen Ikuspegia eta Planifikazioa**.

- **Egoeraren Diagnostia** atalean, lehenik eta behin, eskualdea aurkezten da, hau da, **kokalekua, LGP-ren eremua eta horren deskripzio labur bat** ematen da. Eta ondoren, **AMIA** matriza (ahultasunak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) eta horren interpretazioa egiten da **faktore kritikoak eta lehiatzeko abantailak** identifikatuz.
- Gaur egungo egoera deskribatu ondoren, eskualdeko landa eremuen inguruko **Garapenerako Ikuspegia** aurkezten da.
- **Planifikazio** atalean landa eremuen garapenerako **ardatzak, helburuak eta estrategiak** daude, **planifikazio koadroetan** antolatuta, bakoitza bere **adierazleekin**.

Atal nagusi horiez gain, erabilitako **metodologiaren deskribapen labur bat** eta, aurrekari moduan, **aurreko LGP-ren balorazio bat** barneratu dira.

1.2. METODOLOGIA

Metodologia prestatze eta diseinatze aldera, talde hausnarketa bat antolatu zen LGEetako, IMKko, EJko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko eta LKS-ko ordezkariez osatuta. LKS aholkulari gisa aritu zen. Hausnarketan aurreko LGP-etan erabili zen metodologiaren emaitzak berraztertu ziren eta, **benetako kudeaketa tresna izango den dokumentu bat lortzeko helburuarekin**, zenbait elementu aldatzea erabaki zen:

⇒ **Diagnosi deskribatzailetik diagnosi induktibora:**

Aurreko LGP-etan eta zegoen hutsunea ikusita, diagnosi sakonak egiteko landa eremuen errealitateari buruzko datu estatistiko ugari bildu, sistematizatu eta aztertu egin behar izan ziren. Hala ere, LGEek, IMKko Landa eta Itsasertzeko Sustapena eta Garapena Arloak eta landa eremuetako hainbat eragile giltzarrik duten esperientziak, faktore garrantzitsuenei heltzea eta prozesu induktiboagoa burutzea ahalbidetzen digu.

⇒ **Eskualdeko landa eremuen etorkizunerako ikuspegi bat definitzea:**

Horri esker, etorkizuneko irudi komun bat lortu daiteke, 15-20 urte bitarteko helburu zabal batekin, eta eskualde bakoitzeko landa eremuentzako garapen eredura bideratzen gaitu.

⇒ **Estrategiak oinarrizko planifikazio maila gisa:**


Aurreko landa garapenerako programetan, haiek aurreikusten zuten denboraldian zehar burutu beharreko ekintzak zehaztu ziren. Egindako jarraipenek, ordea, erakutsi digute aurreikuspen ariketa gehiegizkoa izan zela askotan eta azkeneko urtetarako

aurreikusitako jarduerak eraginkortasuna eta bideragarritasuna galtzen joan direla denborarekin. Hori aintzat hartuz, plangintza berri honetan definituko dira 2007-2013 denboraldian egin beharreko bidea markatuko duten **garapen ardatzak, helburuak eta estrategiak**. Ondoren, **Eskualdeko Urteko Kudeaketa Planen** bitartez, dagokion urtean gauzatuko diren jarduerak identifikatuko dira, definitutako estrategien arabera betiere.

Lanaren metodologia diseinatzea, atalez-atal, eta LGPen edukien mailakako garapena eskualde bakoitzean, prozesu paraleloa izan da. Hausnartze-definitze-earpen prozesuaren ondorioz, **gida metodologiko berri bat** dugu EAEko **LGP-ak prestatzeko** eta hau, IMKren Web orrian dago.

Bai diagnosis bai planifikazioko edukiak definitzerakoan, LGEetako eta IMKko ordezkariak gain, hainbat toki administrazioetako ordezkariak, landa eremuen inguruko elkarte sozioekonomiko eta kulturaletako ordezkariak eta Foru Aldundietako zein Eusko Jaurlaritzako teknikariak eta ordezkariak hartu dute parte.

Ondorengo irudian ikus daiteke, labur-labur, eskualde bakoitzean LGP berriak definitzeko aplikatu den **prozesuaren eskema**.



2. AURREKARIAK. AURREKO LGParen BALORAZIOA

1998. urtean onartu zen Landa Garapen Legea. Lege honen ondorioz, eskualde desberdinetan Landa Garapen Programak egiten hasi ziren. Lehenengo Landa Garapen Programak 5 B helburua izeneko Europear dirulaguntza programaren onuradun ziren eskualdetan burutu ziren. Debagoiena, zonalde horretatik at egonik, bigarrenengo faserako geratu zen. Legea onartu zenetik bosgarren urtera egin zen gure eskualdeko Landa Garapen Programa, hau da, 2003. urtean egin zen Debagoienako Landa Ingurunearen lehen “Plan Estrategikoa”.

Lan sakona, astuna eta neketsua izan bazen ere, eskualdearen argazki garbiago bat edukitzeko balio izan zuen: arazo nagusien identifikazioa egiteko, datuekin kontrastatzeko, eskualdeko zonalde desberdinak identifikatzeko,...eta guzti horren arabera, helburuak, estrategiak eta ekintzak definitzeko.

Arlo desberdinetan helburu estrategikoak definitu ziren eta lehentasunezko zonaldeak identifikatu ere bai.

Eskualdeko Landa Ingurunerako lau helburu estrategiko definitu ziren:

- I. **Bailararako jasangarria den eta ingurumenaren zaintzarekin bat datorren lurralde antolamendua sustatu.**
- II. **Baserriaren bizi iraupena ziurtatu eragile ekonomiko gisa eta funtzioaniztasuna bermatu.**
- III. **Landa guneetan populazioa eta landa izaera mantendu.**
- IV. **Landa eremuak bailararako proiektu ezberdinetan presentzia haundiagoa izan dezan sustatu.**

Landa Garapen Programa hauetan oinarrituta, urtez urteko Gestio Plana definitu izan da, inbertsioak eta giza esfortzuak zertara bideratu definitu eta urtean zehar egindakoaren balantzea egiteko.

Horrela, 2005. eta 2006. urteetan Gestio Planen inguruko Txostena egin da. Txosten horietan azaltzen den bezala, Debagoienan urtean zehar 70-80 ekintza desberdinen inguruan egiten da lana. Ekintza hauetako gehienak, helburu estrategikoekin koherenteak izanik, Lurralde Antolakuntza eta Nekazaritza arloetan zentratzen dira eta Landa Garapen Elkartearen lana egiten duten teknikarien dedikazioa ere gehien bat bi arlo horietan zentratzen da.

Ikusten denez, Landa Garapen Programak eta hortik eratorritzen diren Urteko Gestio Planak, Elkartearen lana koherentziaz egiten laguntzeko tresna egokiak dira, helburu estrategikoak zein diren ez ahazten laguntzen baitute eta ekintza zehatzak helburu estrategiko horien betetzera bideratzen baitira.

Horretaz gain, Landa Garapen Programek, “kanpora begira” ere badute bete beharreko funtzioa: eskualdeko beharrak; udalei, bestelako erakundeei eta gizarteari ezagutzera ematea; Administrazioako sail desberdinen inplikazioa gehitzea, eta abar. Zentzu honetan, oraindik bide luze bat dago egiteko. Legeak dionaren arabera, eskualde bakoitzeko Landa Garapen Programa Eusko Jaurkitza eta Foru Aldundietan Dekretuz



onartua izan beharko luke; baina hori oraindik ez da lortu eta horrek LGP egoera ahulagoan uzten du, are gehiago eskualde honetan, non azpiegitura haundien erasoak landa ingurunean izugarritzko eragina duen.

Bestalde, badira arrazoi desberdinak Landa Garapen Programa berriak egiteko:

- **Helburu estrategikoak, ildoak eta ekintzak egokitu beharra:** Bost urte ondoren, egoerak, beharrak, asmoak, aldatuz doaz. Urte hauek ere lagundu dute errealitatea hobeto ezagutzen, metodoak ikasten eta abar.
- **PDRS marko berria:** Debagoiena eskualdea orain arte Europako dirulaguntzen zonifikazioetatik at egon da, baina 2007-2013 PDRS berriaren barruan sartuko da. Horrek diru aukera berriak sortuko ditu eta, beraz, Landa Garapen Programa berriak, aukera berri hauek barneratu behar ditu.
- **Tresna legalki baliagarria bihurtzeko:** 2003. urtean burutu zen Debagoienako Landa Garapen Programak, ez zuen Landa Garapen Legeak jasotzen duen prozesu administratibo guztia bete, ez ziren Dekretuz onartuak izan Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundian. Baina Dekretuz onartzeak LGPei indar berezi bat ematen die. Hori dela eta, prozesu administratiboa burutzen hasterako beharrezkoa da 2007. urtera egokitutako Plan Estrategikoak izatea.

3. EGOERAREN DIAGNOSIA


3.1. ESKUALDEAREN AURKEZPENA

3.1.1 Kokapena



3.1.2 LGParen Eremua

LGP hau Debagoiena eskualdeko landa eremuetan garatuko da, horretarako, landa eremuen edo zonaldeen³ mugaketa bat egin da. Ondorengo mapan eskualdearen landa eremuak ikusi daitezke



³ LGP garatuko den eremua mugatzeko PDRS 2007-2013rako definitu den mapa bera hartu da erreferentziatzat, eta Entitatea izan da oinarritzko lurralde unitatea.

3.1.3 Eskualdearen deskribapena

Debagoiena eskualdeko landa inguruneak ezaugarri bat baino gehiago baditu ere, bada bat azpimarratu daitekeena: ezezaguna izatea. Eskualdean bizi den jende askok, eta zer esanik ez Gipuzkoako beste eskualdeetako bizilagunek, ez dute Debagoienako landa ingurunea ezagutzen.

Bestalde, eskualde hau izan da Gipuzkoa mailan nekazaritza arloa gainbeheraka hasi zen lehenengoa.

Eskualdea oso maldatsua izateaz gain, Deba ibaiaren eta bertara isurtzen duten beste errekaen inguruko zelai urri eta nekazaritzarako egokiak, industriak eta etxebizitzek bete dituzte. Bailarako behealdean, ibai ertzetan, beraz, ia ez dago nekazaritzarik, lur hauek beste erabileratarako bideratu baitira.

Industrializazioak eta Kooperatiba munduak indar handia du eskualde honetan. Gipuzkoako beste eskualde batzuetan baino lehenago hasitako fenomeno da hau, eta beste zenbait eskualdeetan baino indar handiagoz garatu izan da.

Eskualde maldatsua izateak alde batetik, eta industria eta kooperatibagintzaren indarrak eta erakargarritasunak bestetik, nekazal aktibitatea asko murriztea ekarri dute, datu kezkarrietaraino iritsiz. Gaur egun, nekazaritzatik soilik bizi diren baserriarren portzentaia % 2koa baino ez da. Zentzu honetan, Debagoienako landa eremuan, baserri munduan, deskapitalizazio prozesu larri bat gertatu dela esatea, ez da gezurrik esatea, nahiz eta gogorra egiten den aitortzea.

Dena den, eta ibai ertzak urbanizatu badira ere eta malda askotan pinu eta basoak indarra hartu badu ere, Debagoienan landa eremua bizirik dago, landa eremuak askok pentsatzen ez duten moduko garrantzia jokatzen du. Eskualde honetan, lur eremu handiak baserriarrak eta landa eremuko biztanleek gestionatzen dituzte. Oñatiko Arantzazu-Araotzetik hasi, Antzuolako mendietara pasa, Bergarako Elosu, Angiozar eta beste auzoak barne, Aretxabaletako Urkulu aldea, Eskoriatza-Gatzaga bidearen alboetako landa eremuak,..., bide nagusietatik irten eta mendi txuloetatik gora hasiz gero, eskualde honen paraje zoragarriak bistaratzen dira.

Beste eskualde batzuetan herri edo herrixka direnak, Debagoienan, herri haundi bateko landa auzo dira. Debagoienan ez dago landa herri txikirik –Leintz Gatzaga salbu- baina bai landa auzo ugari.

Eta landa auzo edo eremu horietan, baserritarra da protagonista, baina bere ezaugarriak aldatuz joan den baserritarra. Baserriarren %2ak bakarrik du nekazaritza ogibide; edo bestaldera esanda, baserriarren %98ak, baserriz kanpoko ogibidea du. Portzentai hau, lehen aipaturiko gainbeherakadaren adierazle bada ere, potentzial baten adierazle ere bada. Oraindik ere lurrari eta baserri munduko aktibitate eta izaerari lotutako jende ugari dagoenaren adierazlea da.

Lehen sektorearen barruan, ez dago azpisektore bat besteekiko gehiegi nabarmentzen denik; basogintza eta pinudiek indar dexente dute eta artzaintzak ere bai Oñati aldean batez ere.



Debagoienako lehen sektoreak, Gipuzkoako lehen sektoreak duen arazo berdintsua du: aktibitate bat jartzera animatzen den sustatzaile gehiegirik ez badago ere (dedikazio askoko aktibitateak dira, inbertsio haundiak egin beharrekoak,...), dauden apur horiek ere berebiziko zailtasunak izaten dituzte, muga haundi batekin aurkitzen baitira: etekina lortzeko moduko prezioetan salduko litzatekeen lur eskasia.

Turismo arloan, Debagoienak ez du beste eskualde batzuek bezelako garapenik izan eta hori, landa eremuan ere nabarmendu da. Landa turismoak ez dio landa eremuari beste eskualde batzuetan bezelako bultzakadarik eman, ez du dibertsifikazio efektu hori asko indartu. Dena den, Oñati-Arantzazuk, Arrikutzek, Aizkorri-Aratzeko Parkeak, Leintz-Gatzagak, Urkulu inguruak eta bestelako parajeek, bide hori landu eta indartzeko aukera ematen diote.

Debagoienako landa ingurunea, eskualde honetako biztanleriarentzat “arnas leku” eta “aisi leku” da eta etorkizunera begira, paper hau indartuz joango dena zalantzarik gabe. Baina baserritarra eta landa eremuko biztanleek “jaki goxo ekoizle” eta “inguru zaintzaile” paper horretan jarrai dezaten, beraien bizi baldintzak eta zerbitzuak hobetu eta hiritarren parera berdintzeko ahaleaginean jarraitu beharko da.

3.2. AMIA MATRIZA

Eskualdeko gaur egungo landa eremuen egoera ezagutzeko AMIA azterketa bat egin da. Ondorengo Matrizan isladatzen dira eskualdearen garapen prozesuan eragiten duten **barne faktoreak** (ahuleziak eta indarguneak) eta **kanpo faktoreak** (mehatxuak eta aukerak).

AHULEZIAK	MEHATXUAK
Baserri mundua “deskapitalizatuta” dago. Gainberakada horretan, Debagoien eskualdea besteak baino 20 urte inguru aurreragoik doa	Hainbat azpiegitura garatzeko proiektuek (AHT, autopistak,...) ingurumenean, nekazaritzan, turismoan,... eragin ezkorra izan dezakete.
MCCren erakargarritasuna eta bere irensteko ahalmena ikaragarria da. Eskualdean ez da beste aktibitate baten aukerarik aurreikusten eta “kooperatibista” izatera predestinatuta daudela dirudi. Eskualdeak oso ikuspegi industrialak du eta ingurumena, nekazaritza eta natur baldibideak bigarren mailan gelditzen dira.	Industria, etxebizitza eta baso hedapen presioa landa guneeetan. Lur eskasia dela eta, herrien hazkuntzak, industriaren hedapenak eta basoen hazkundeak larre lurak gutxitu ditu batez ere.
Industriak duen eskari altua dela eta, nekazal jarduerarako lan esku gabezia.	Egiten diren plangintzetan industria eta etxebizitzek dute lehentasuna, eta ingurumena eta nekazal lurzorua bigarren maila batean geratzen dira.
Baserri lanak prestigio eskasa du eta baserriarren artean autoestima baxua da. Alderdi hauek oso nabariak dira eskualde honetan.	Nekazal sektoreari oso zaila egiten zaio beste sektoreekin lehiatzea lan baldintzei dagokienean.
Landa inguruneke jendearen eta, batez ere, sektorean dihardutenen zahartze tasa altua da. Nekazaritzan gazterik ez dago eta belaunaldi aldaketa emateko zailtasun handiak daude.	Gazteen emigrazioa landa guneeetatik hiriguneeetara eta landa guneeetako zahartze tasaren igoera.
Eskualde honetan gutxiengo mugaren azpitik dago nekazaritzan ari direnen kopurua. Dedikazio osoko profesional oso gutxi dago.	Landa eremuaren “urbanizazioak”, bertako bizimoduaren galtzea dakar.
Ekoizpen bolumenak txikiak dira. Honek, besteak beste, errentagarritasun baxua, merkatuaren eskaria asetzeko zailtasuna eta kalitatea zigiluak lortzeko eragozpenak dakartza.	Landa guneko zerbitzuak planteatzerakoan, errentagarritasun irizpideak erabiltzen dira balorazioak egiteko.
Bailara honen izaera industrialaren irudia hedatua dago eta, bertako biztanleriaren artean, turismorako duen potentzialean sinesgarritasun eza dago. Horrek landaturismoa hedatzeko zailtasuna dakar.	Familia egituraren aldaketak, zahartze tasaren igoerak,...gizarte zerbitzuetako eskaria gero eta handiagoa izatera eramaten dute.
Eskualdeko Turismoa garatzeko baldibide eskasia (laneskua, ostatu kopurua, formakuntza,...) dago eta arazoa areagotu egiten da landaturismoari dagokionenean.	
Auzoei, auzo alkatea izan arren, oso zaila egiten zaie beren proiektuak aurrera eramatea.	
AHULEZIAK	MEHATXUAK
Zerbitzuak planifikatzerakoan landa ingurunea ez da kontuan hartzen kolektibo gisa.	



Garraio publiko zerbitzua ez dago landa inguruneko beharretara diseinatuta eta egokitua. Malgutasun eta eskariaren araberako zerbitzua falta da.	
Zenbait auzotara doan errepidea hobetu beharrean aurkitzen da: Araotz,...	
Ur hornidura eta batez ere saneamendu arazoak daude zenbait landa gunetan.	
Kasu askotan, landa guneko gazteentzat eskuragarri den etxebizitza eskaintzarik ez dago luraren gaineko presioak ezarritako salneurriak medio.	
Hezkuntza zerbitzuak herri haundietan koncentratzen direnez, zerbitzu honetara modu erosoan iristeko garraio aukerak ez dira nahikoak izaten kasu askotan.	
Aintzakotzat hartzen den gutxieneko populazio kopurura ez iristeak zerbitzuen antolamendua zaildu egiten du.	

INDARGUNEAK	AUKERAK
Azpiegitura haundiek eskualdeari txikitzena edo zatikatzena doan irudia eman diote, hori, landa eremuaren mantentze aldera konpentsazioak eskatzeko aprobetxatu egin behar da.	Ingurumenaren balorazioa eta bere aldeko sentsibilizazioa gorantz doaz.
Bere aprobetxamendurako formula ezberdinak aurkitu beharko badira ere, erabilgarri egon daitezkeen lurak badaude, gaur egun, nekazal jarduerarako erabiltzen ez diren edota gutxi aprobetxatzen diren lurak hain zuzen (Bergaran eta Oñatin batez ere).	Landa inguruneak zerbitzu emaile gisa paper garrantzitsua joka dezake: natura ondareak, kultura...
Nahiz eta nekazaritzan baserritar "misto" asko egoteak eskualde honetan nekazaritzak bizi izan duen gainbeherakadaren seinale izan daitekeen, potentzial garrantzitsua ere bilakatu daiteke bere berreskurapenerako.	Azpiegitura haundien burutzea, landa inguruneari nolabaiteko konpentsazioak lortzeko aukera ireki diezaioke.
Merkatuaren gertutasunak eta bertaratu daitekeen biztanle kopuru handiak abantaila handiak eskaintzen ditu.	Kalitatezko produktuen eta gunean guneako produktuen merkatu balorazioa gorantz doa.
Ondare natural paisajistiko ugari. Aizkorri-Aratzeko Parke Naturala, Urkuluko urtegia, Arlaban, ...	PDRS berriak (2007-2013) aukerak emango dizkie eskualde honetako landa eremuei bere garapenean lan egiteko, aintzat hartuak izango baitira: finantziario aukera gehiago,...
Ondare historiko eta kulturalen presentzia handia (Oñati, Bergara, Gatzaga, eskualdeko auzuneak...).	Administrazioaren kontzientziakzioa gora doa landa ingurunearen dimentsio funtzioan dela eta (ekonomikoa, ekologikoa, sozio-kulturala,...).
Arantzazuk eta bertako erreferentzialtasunak aprobetxamendu aukera ugari ematen ditu arlo desberdinetan, turismoan esaterako.	Inguruneako sare industrial eta kooperatiboak sinergia bide garrantzitsuak eman ditzake (DEBARROAko GAILUR proiektua).
Eskualdeko gizartearen sentsibilizazio eta kontzientziakzio ahaleginetan, landa eremua mantentzearen behararen inguruan, pauso dezente eman dira eta lan dinamika bat sendotu da (DEBARROA).	Negozio turismoak dibertsifikazio aukera garrantzitsuak eskaini ditzazke bailaran.
Eskualdean mantentzen den auzo alkate figura garrantzitsua da zenbait lan bideratzeko eta bitartekaritza lanetarako.	Landa turismoak landa ingurune eta kulturaren berri emateko aukera eman dezake. Hau, landa gunearen gizarte ospea berreskuratzeko bide bat izan daiteke.
Beste eskualdeekin alderatuz, herri gutxiz osatua dago eskualde hau. Horrek bere alde ona du, administratiboki maneigarriagoa izan daitekelako, gestionatzen errezagoa, baldin eta udal bakoitzeko erreferente izan daitekeen pertsonaren lankidetzeta eta konplizitate lortzen bada.	Oraindik bada landa-kultura eta nortasun bat bertan mantentzen duena biztanlegoa.
Arau subsidiarioek baserria bitan banatzeko eta, udalerrri gehienetan, auzoetako gunea zerbait handitzeko aukera ematen dute.	Alor berriak ari dira garatzen Zerbitzu Asistentzialei dagokionean, batez ere, gizartearen kontzientziakzioa handituz doalako.
INDARGUNEAK	AUKERAK



Udalerri guztiek osasun eta gizarte zerbitzu minimoa dute: etxez etxeko zerbitzua, pertsonal espezializatua,...	Zerbitzu pertsonalizatuak gehitzen doaz, deszentralizazioaren ideia zabaltzen edo jorratzen doa.
---	--

3.3. LEHIATZEKO ABANTAILAK ETA FAKTORE KRITIKOAK

AMIA azterketa oinarritzat hartuz, eskualdeko landa eremuen egoerari buruzko elementu giltzarrienak identifikatzen dira. Elementu horiek **lehiatzeko abantailak** eta **faktore kritikoak** dira.

Lehiatzeko abantailak landa eremuen garapenarentzako ezaugarri mesedegarrienak dira; eskualdeak dituen indargune garrantzitsuenak direlako eta beraiei eragiten dieten kanpo aukerak dituztelako.

Faktore kritikoak, berriz, eskualdeak dituen ahulezi kaltegarrienak dira, kanpoko mehatxuengatik areagotu egiten direnak. Faktore kritikoek, azken baten, landa eremuen garapena zaildu eta/edo oztopatu egiten dute.

Horiek guztiak identifikatze aldera, **kanpo faktoreek barne faktoreetan duten inpaktua edo eragina** aztertu da, hau da, aukerek indarretan eta mehatxuek ahultasunetan hurrenez hurren.

3.3.1. Lehiatzeko Abantailak

LA1. Sentsibilizazioa: Gizartearen sentsibilizazio eta kontzientziatze ahaleginetan pauso dexente eman dira eskualdean (**Debarroa** proiektuari esker batez ere) eta lan dinamika bat sendotu da. Horren ondorioz, gizarteak nekazaritzarekiko eta landa guneekekiko daukan ikuspegia aldatuz doa eta bide berriak irekitzen laguntzen du (hezkontza munduan, sare ekonomikoan, turismoan, ingurunearen mantentzean,...).

LA2. Inplikazioa eta laguntzak: Landa eremuen berdefinizioak (udalerrri “urbanoen” landa auzoak aintzakotzat hartuak izateak) dirulaguntza programa berriei begira (PDRS 2007-2013, Erein, Leader,...) eta gizarte nahiz administrazioaren kontzientziatze igoerak landa eremuen arazoekekiko eta funtziokekiko, aukera berriak eskaini diezazkieke eskualde honetako landa eremuei: finantziario iturri berriak, administrazio desberdinen inplikazioa handitzea, konpentsazio desberdinak lortzeko aukerak aprobetxatzea (azpiegitura handiek eragiten duten kalteen ordainak,...).

LA3. Koordinazioa: Beste eskualdeekin alderatuz, **herri gutxiz osatua dago** eskualde hau eta landa auzo gehienetan ordezkariak (auzo alkateak) daude. Horrek bere alde ona du, administratiboki maneia garriagoa izan daitekeelako, gestionatzen errezagoa, baldin eta udal bakoitzeko erreferente izan daitekeen pertsonaren lankidetzeta eta konplizitate lortzen bada.

LA4. Nekazaritzaren berreskurapena: Dedikazio “mixtoa” daukaten baserritar asko dago eskualde honetan (1300 inguru). Hauek, beraien perfila eta asmoak ondo ezagutuz eta estrategia egokiak bultzatuz gero, **potentzial garrantzitsua** bilakatu daitezke nekazaritza sektorea berreskuratzeko. Estrategien zehaztapen horretan kontutan izateko faktore garrantzitsu bat, hirigunearen gertutasuna izan daiteke, sektorearen dibertsifikazio aukera errazten baitu (salmenta zuzena, nekazal turismoa, zerbitzu konbinatuak, teknoturismoa,...).

LA5. Eskualde honek ondare natural, historiko eta kulturalaren presentzia oso handia dauka eta horien adierazle nabarmenena (ondare mota guztiak bereganatzen dituen) **Arantzazu** da. Gaur egun, ingurumenaren eta, orokorrean, landa inguruneak

zerbitzu emaile gisa joka dezakeen paperaren inguruko balorazioa eta sentsibilizazioa gora doazela eta, Arantzazuk eta bertako erreferentzialtasunak aukera ugari eman ditzake arlo desberdinetan.

3.3.2. Faktore Kritikoak

FK1. Nekazaritzaren kritikotasuna: Debagoiena eskualdean, landa inguruneko ezinbesteko aktibitatea den **nekazaritza, neurri kritikoan azpitik dago**. Dedikazio osoz lanean ari diren **profesionalen kopurua oso txikia** da, larritzat jo daitekeen kopurua. Gainera, gaur egun nekazaritzara osoki dedikatzen direnen adina oso altua da eta 10-15 urteko horizonte batean, ia inor gabe geratzeko arriskuan gaude. Nekazal munduaren deskapitalizazio hau, Gipuzkoako beste eskualdeetan baino lehenago hasi zen Debagoienan eta beste eskualdeetan baino beherago erori da. Aldi berean, landa eremuan bizi eta baserria duten jende asko badago ere (nekazaritzarako aktibo potentzialak), jende horren perfila, asmoak, ahalmenak, sendi jarraipena, ez dira ezagutzen. **Dauzkagun “aktiboen” informaziorik ez dago** eta horrek sektorea berreskuratzeko estrategia egokiak definitzeko zailtasunak dakar.

FK2. Lur egokien gabezia: Debagoienak, orain arte nagusitu edo errentagarri izan diren ustiakuntza motak garatu ahal izateko muga handi bat du: **orografia**. Ez dago lur eremu zabal eta nahiko laurik eta nekazaritzarako egokienak ziren **lur gutxi horietako gehienak** (bailaran behekaldeak) **galdu dira azpiegitura handien eraginez**, etorkizunean ere joera hori jarraituko duela aurreikusten delarik. Horrez gain, nahiz eta eskualdeko nekazal jarduera gutxitu den, lur eskaintza ez da gehitu. Eskualdean nekazaritzak jarraipena izateko dituen zailtasun ugariaren artean, lur egokien eskasiarena arazo garrantzitsua da.

FK3. Nekazaritzaren irudia: Nekazal aktibitatean lanean dihardutenek (bai dedikazio osoz bai misto bezala), **etorkizunari buruzko ikuspegi ezkorra** dute eta hori landa inguruneko gainontzeko jendearengana ere zabaldua dago. Debagoienako gizartearentzat, gainera, nekazaritza aktibitatea, ia “**folklore**” hutsean bihurtua dago. Landa ingurunean bizitzea normala eta nahiko erakargarria dela kontsideratzen da baina ez nekazaritzan lana egitea (eskualdean ia ezinbestekotzat jotzen da kooperatiba munduan lana egitea). Ikuspegi horri asko laguntzen dio, beste erakundeek, agentziek eta abar, modernitate eta aurrerapen irudia transmititzen duten bitartean, **eskualdeko landa erakundeek** (Bergarako egoitzan kokatuta daudenak adibidez), **estankatutako edo zaharkitutako irudia transmititzen dutela**. Sektorearen adierazle da eraikina bera.

FK4. Inplikazio gabezia: Gainerako erakunde eta agenteek (udaletxeek,...), **LGE-a soilik urteko betiko proiektuak gauzatzeko tresna** bezala ikusten dute eta beraien inplikazioa lortzea landa garapenaren inguruko proiektuak garatzeko asko kostatzen da. Udaletxeen kasuan, zenbat eta handiagoa izan are eta gehiago kostatzen da inplikazioa lortzea.

4. ETORKIZUNERAKO ESKUALDEAREN IKUSPEGIA

Eskualdearen egoera eta ditugun ahalmen eta oztopo nagusienak ezagutzeaz gain, **nolako landa eremuak nahi ditugun identifikatzea ere garrantzitsua da, hau da, nora iritsi nahi dugun garapen prozesuaren bidez.**

10-15 urte bitarteko denboraldia aurreikusi da eta, zentzu horretan, iritsi nahi dugun eszenategi horretara pausoz pauso gerturatuko gaituen tresna LGP bilakatzen da.

Horretarako, eragile giltzarriekin batera, hausnarketa bat egin da etorkizunari begira, alde batetik lortu den irudiak eragileon **“nahia”** adierazten du, baina bere eskuragarritasuna ahaztu gabe.

Landa eremuetako gizartearen berezko izaera garatzen duten eta herrimina duten pertsoez osatua eta hauen bizi kalitate egokia bermatzen duena. Solidarioa eta elkarlanerako prest dagoena barrukaldera zein kanpokaldera.

Hiritar guneetatik bereizten duten ezaugarriengatik Gizartearen partetik moralki zein materialki errekonozitua den eremua, bai politika, legegintza, ekoizpen zein zerbitzuetan.

Landa lurraren bokazioak bereizten dituzten araudiez babestua eta garapen jasagarria mugatu gabe, landa lurra mantentzeko gai dena.

Ingurumena errespetatzen duena eta energia erabilpenean gero eta efizienteagoa eta iraunkorragoa dena.

Landa eremuko gizarte, natur, ingurugiro eta kultur ezaugarriekin bat datozen eta lanpostuak eskeintzen dituzten aktibitate ekonomikoekin, hauen artean gutxienez gaur egungoak dituen aldagai ekonomiko eta espazialak dituen Nekazaritza duena, honek balio erantsiko produktu eta zerbitzuak ekoiztuz, laguntzen menpekotasunean ez dagoena, bere jarraipena bermatzen duena eta aldaketei aurre egiteko gai dena izanik.

PLANIFIKAZIOA

5.1. ARDATZAK, HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

Alde batetik **lehiazeko abantailak** eta **faktore kritikoak** dauzkagularik eta, bestalde, etorkizunari begira eskualdeak definitu duen **ikuspegia** kontutan hartuta, plangintzaren bidez oraingo egoeratik lortu nahi den egoerara emango ditugun pausuak zehaztu dira.

Plangintza hiru maila nagusietan antolatu da:

- **Ardatzak** edo lan eremu zabalak
 - **Helburuak**, 2007-2013 bitartean ardatz bakoitzean lortu beharrekoak
 - **Estrategiak**, helburua lortzeko bidea ezartzen dutenak

Metodologia azaltzerakoan aipatu dugun bezala, ekintza edo proiektu zehatzak eskualdeko urteroko kudeaketa planetan jasoko dira.

Debagoiena eskualdeko ardatz nagusiak honako hauek dira:

1. **Nekazaritza Jardueraren Garapena.**
2. **Landa Eremuetako Bizi Kalitatearen Hobekuntza.**
3. **Landa Eremuak Betetzen Dituen Funtzioen Zehaztapena eta Errekonozimendua.**
4. **LGE-en Egituraren Egokitzapena.**

5.2. PLANIFIKAZIO KOADRO OROKORRA

Hurrengo orrietan ardatz bakoitzeko jorratu diren taulak aurkezten dira. Ardatz bakoitzari dagozkion helburuak eta hauek lortzeko aukeraturiko estrategiak jasotzeaz gain, helburuei jarraipena emateko kontutan izango ditugun adierazleak zehazten dira.

GARAPEN ARDATZA 1: Nekazaritza Jardueraren Garapena				
HELBURUAK:	Adierazleak	Gaurko balioa	2010 Balioa	2013 Balioa
1. Nekazaritza aktibitateak bere garapenerako beharrezko dituen zerbitzuen sorrera, egituraketa eta finantziario egokia bermatu.				
Estrategiak:				
<p>1.1 Nekazaritza aktibitateen kostuen jeitsieran/errentagarritasunean eta nekazarien bizi kalitatearen hobekuntzan laguntzen duten zerbitzu berriak zeintzuk izan daitezkeen aztertu eta hauen garapena bultzatu.</p> <p>1.2 Makina zerbitzuen antolaketa bultzatu eta hauen kontsolidazioa bermatu.</p>				
HELBURUAK:	Adierazleak	Gaurko balioa	2010 Balioa	2013 Balioa
2. Nekazaritza (ekoizpen, antolaketa, salmenta,ea.) eredu berriak bilatu eta garatu.				
Estrategiak:				
<p>2.1 Berrikuntza eta ideia edo eredu berriak aztertu, garatu eta bultzatuko dituen lan sistematikoa antolatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Espazioa era egoki batean kudeatzen duten lurrari lotutako ekimenak lehenesteko erizpideak bultzatu landa eremuko eragileen artean. • Nekazaritza azpisektoreetan egon daitezkeen aukerak, ideia berritzaileak eta arriskuak aztertu eta beraien aurrean hartu beharreko neurriak proposatuko dituen eta erreferente ezaguna izango den Behatoki bat sortu, bertatik orientazioa eskeiniz. • Nekazal aktibitateen barruan bereziki nekazaritza ekologikoa oinarritzat duten proiektuak bultzatu <p>2.2 Ideia berritzaileak aurrera eraman ahal izateko baliabideak bermatu, ingurumen zaintzarekin bat datozenak bereziki bultzatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Energia berriztagarriak landa eremuan eta nekazaritza arloan ingurugiro mantenimendu, kostuen beherakada edo diru sarrera berrien sorreran izan dezaketen balioa aztertu eta aplikagarriak izan daitezkeen lekuetan bultzatu. • Ideia berritzaileak sortzen direnerako azpiegiturak (lurrak...) eta lanabes ekonomikoak prest eduki. <p>2.3 Baserrian Tartekako Dedikazio Profesionalizatuaren (Misto profesionala) eredua bultzatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Mistoaren" figura kontsolidatzeko bideak jarri. Baserritarrak definitzen dituzten figura horiek ondo zehaztu 				

HELBURUAK:	Adierazleak	Gaurko balioa	2010 Balioa	2013 Balioa
3. Lurraren eskuragarritasuna bermatu nekazal aktibitaterako.				
Estrategiak:				
<p>3.1 Landa lur beharrak era egokian kudeatu ahal izateko tresnak / baliabideak eta neurriak bultzatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> Lur Kudeaketa Erakunde bat sortu: Lurra alokatu, erosi eta saltzeko gaitasuna eta izaera juridiko propioarekin, landa eremuan eta nekazaritza proiektuetan eman litezkeen lur beharrei erantzun ahal izango diena. Diruz hornitu eta lanean jarri. 				
HELBURUAK:	Adierazleak	Gaurko balioa	2010 Balioa	2013 Balioa
4. Ingurumena eta paisaia errespetatu eta babesten duen nekazaritza bultzatu eta argumentu komertzial bihurtu				
Estrategiak:				
<p>4.1 Espazioa era egoki batean kudeatzen duten lurrari lotutako ekimenak lehenesteko kriterioak bultzatu landa eremuko agenteen artean.</p> <ul style="list-style-type: none"> Ekimen hauek lehenesteko kriterioak ezarri eta zabaldu landa eremuko eragileen artean. 				
HELBURUAK:	Adierazleak	Gaurko balioa	2010 Balioa	2013 Balioa
5. Gazteak sektorean hasi daitezten neurriak jarri: Belaunaldi aldaketa bermatu.				
Estrategiak:				
<p>5.1 Sektorean era profesional batean barneratu eta jarduteko behar den formakuntza eta aholkularitza indartu.</p> <ul style="list-style-type: none"> Nekazaritza azpisektoreetan egon daitezkeen aukerak, ideia berritzaileak eta arriskuak aztertu eta beraien aurrean hartu beharreko neurriak proposatuko dituen eta erreferente ezaguna izango den Behatoki bat sortu, bertatik orientazio eskeiniz. Oñatiko Artzai eskolakin elkarlan proiektu konkretuak bultzatu. <p>5.2 Lur eta ustiatzearen eskualdaketa bermatuko luketen neurriak bultzatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> Administrazioei GAZTENEK egitasmoak dituen neurri guztiak garatu daitezten eskatu eta LGEek zerikusia duten eragin. <p>5.3 Sektorea erakargarri eta sarrera errazekoa bihurtu dezaketen faktoreak indartu.</p> <ul style="list-style-type: none"> Gazteen bizi kalitatean eragin zuzena duten zerbitzu eta neurriak bereziki babestu (ordezkapen zerbitzuak,...). Sektorearen ikuspegia hobetu, prestigiatu, erakargarriagoa izan dadin. Sektorearen inguruan ematen diren komunikazioetan ikuspegi hori bermatu. 				

GARAPEN ARDATZA 2: Landa Eremuetako Bizi Kalitatearen Hobekuntza

HELBURUAK:	Adierazleak	Gaurko balioa	2010 Balioa	2013 Balioa
<p>1. Landa eremuak oinarrizko zerbitzu eta azpiegiturekin hornitu eta horien mantenimendua bermatu.</p>				
Estrategiak:				
<p>1.1 Landa eremuan bermatu beharreko gutxieneko azpiegitura eta zerbitzuak definitu, herri, auzo eta baserri-etxe sakabanatuetan.</p> <p>1.2 Eremu eta esparru bakoitzaren egoera identifikatu eta eskualde eta Gipuzkoa mailan lehentasuneko arloak definitu.</p> <p>1.3 Gipuzkoarako lehentasunezko bezela definitutako oinarrizko zerbitzu eta azpiegiturak bermatzeko ekintza pogramak martxan jarri.</p>				

GARAPEN ARDATZA 3: Landa Eremuak Betetzen Dituen Funtzioen Zehaztapena eta Errekonozimendua

HELBURUAK:	Adierazleak	Gaurko balioa	2010 Balioa	2013 Balioa
1. Gizartea eta bere ordezkariak, Landa Eremuak gizartean duen garrantziaz jabetu daitezen lortu eta paper honengatik behar duen begirunea, tratu egokitua eta ordaina izan dezan lortu.				

Estrategiak:

- 1.1** Landa Eremuak gizartean duen paper objektiboa aztertu eta hau gizarteratzeko "diskurtso" amankomuna adostu.
- Gizarteak Landa Eremuarengandik espero dituenak eta objektiboki honek eskeintzen dizkioenetan oinarrituriko argumentuak bilduko dituen diskurtso amankomun bat osatu, gizartean oihartzuna duten eragileekin batera, hauek diskurtso hori gizarteratzeko erabiliz.
 - Gizarteak Landa Eremuaz eta Landa Gizarteaz duen iritzia eta bertatik espero dituen produktu, zerbitzu eta jarrerak bilduko dituen azterketa ahalik eta objektibo eta zabalena egin.
- 1.2** Landa Eremuaren "emariaren (aportazioaren) diskurtsoa" gizartean ezagutzera eman.
- Landa Eremuaren Emaria gizarteratzeko Komunikazio Plan bat garatu eta bultzatu Gipuzkoa mailan.
 - Landa eremuaren emariaren diskurtsoa osatzeko eta gizarteratzeko lagun izan daitezkeen agenteak bilatu eta gureganatu, denok mozkinak ateratzeko elkarlan egitasmoak bultzatuz.
- 1.3** Landa Eremuaren Emariaren truke Gizarteak eman beharreko begirune eta ordainsaria gauzatu dadin lortu.
- Debarroa egitasmoaren antzera, landa eremua eta gizarte osoaren arteko harremana, elkar ezagutza, sentsibilizazioa, begirune bilaketa, elkarlana, e.a. helburutzat duten egitasmo guztiak biltzen dituen programa amankomun bat landu, antolatu, indarrean jarri eta zabaldu Gipuzkoa osoan eta ahal bada E.A.E. mailan.
 - Debagoiena eta Debemen LGE-ek elkarlanarekin jarraitu Debarroa egitasmoaren ekimen berriak landuz eta elkarteen beraien ezagutaraztea indartzuz.

HELBURUAK:	Adierazleak	Gaurko balioa	2010 Balioa	2013 Balioa
2. Bertako biztanlegoa Landa Eremuak gizartean duen garrantziaz jabetu dadin lortu eta bertakotasun sentipena indartu.				

Estrategiak:

- 2.1** Biztanlegoak herri ekimen eta kudeaketan duen parte hartzea handitu.
- Biztanlegoa biltzeko lekuak sortu eta indartu.
 - Dinamizatzaileen figura bultzatu eskualde mailan, auzoen arteko harremanak bultzatzeko ekimenak antolatuz.
- 2.2** Eskola Txikiak indartu eta bertakotasun sentipen sorreran duten papera sendotu.
- LGE-en eta Eskola Txikien Elkartearen arteko harremana sortu, marko finko bat sortu eta elkarlan proiektu konkretuak bultzatu.

HELBURUAK:	Adierazleak	Gaurko balioa	2010 Balioa	2013 Balioa
<p>3. Administrazio desberdin guztien aldetik Landa Eremuarekiko konpromiso politikoa handitu eta bertara zuzendutako baliabide ekonomiko zein teknikoak haunditu daitezen bultzatu.</p>				
Estrategiak:				
<p>3.1 Administrazio arlo ezberdinen arteko elkarlana lortu.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Landagipuzkoa “mahaia” eraginkorra izan dadin asmoarekin GFari eskari bat luzatu beraren funtzionamentu arautua ezarri dezan, egutegi maiztasun, informazio trukaketa sistemak, gaiak proposatzeko bideak, e.a., finkatuz. • GFari Landagipuzkoa mailan tratatzea komeni den gaien zerrenda bidali, mahaia konbokatu eta biziberritu dezan eskatuz GLGE guztien izenean. <p>3.2 Landa Eremuan lan egiteko momentuan Administrazioen erreferentziazko erakundeak, GLGEak izan daitezen lortu.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erreferentzialtasuna irabazteko GLGE-en lana ezagutarazi, batez ere udaletxei begira. 				

GARAPEN ARDATZA 4: LGE-en Egituraren Egokitzapena

HELBURUAK:	Adierazleak	Gaurko balioa	2010 Balioa	2013 Balioa
1. Helburu berrietarako egokiena izan daitekeen egitura lortu.				

Estrategiak:

- 1.1 Foru Aldundia eta Landa Garapen Elkarterekin harremana formalizatu.
 - Gipuzkoa mailan hilabetero egiten den LGEen bilera, Gipuzkoako landa garapen bilera bilakatu GFA, EJko Landa Garapen Zuzendaritza, IMK eta LGEk osatua.
- 1.2 LGE-en egitura administratiboa egokitu.
 - Landa Garapenean gaur egun lanean dabiltzan estruktura desberdinen arteko harremanen inguruko hausnarketa bateratu bat bultzatu ze egitura administratiboa/teknikoa/funtzionala eduki behar duten argitzeko (LGEk, IMK, GFA, EJko LGZ,...). Estruktura guztien partehartzea bermatu hausnarketa horretan.
 - Teknikarien kualifikazioa-formazioa eguneratu.
- 1.3 Lan esparru berrietara ireki eta erreferentzialtasuna lortu.
 - Eskualdearen garapenerako egiten diren plangintza estratéxico, PTP, A21,... eta Landa Garapen Elkarten partehartzea bermatzea.

HELBURUAK:	Adierazleak	Gaurko balioa	2010 Balioa	2013 Balioa
2. Landa eremuak berez dituen ezaugarriengatik sortzen diren diskriminazio egoerak zuzentzen dituzten politikak eta neurriak hartu.				

Estrategiak:

- 2.1 Administrazio desberdinekiko harremana lortu, hobetu eta sendotu.
 - Landa eremuko beharrak, arazoak... aztertu, horiekin proiektuak landu eta administrazio desberdinen esku jartzeko, soluzioak ematea exigituz, orain arte egin diren Plan egokituak eredutzat hartuz. Lehentasuna Gizarte zerbitzu eta oinarrizko azpiegituraz (ura, garraio publikoa,...) arduratzen diren Departamentuak izanik.
 - Landa Garapen arloaz arduratzen ez diren beste departamentuetara joateko Erlazio Kanpaina bat antolatu, beren politiketan landa eremurako Plan bereziak egiteko beharra ikustarazteko, edo gutxienez hura kontutan izan dezaten lortzeko.
- 2.2 Landagipuzkoa indartu.
 - Landagipuzkoa mahaia aktibatzekeo gestio amankomunak egin bere beharra eta egokitasuna zabalduz.